BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

368

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 17koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, Bilboko hiri-trenbidearen linean Urdulizko sestrako trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektuak eraginpean hartzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda onartu, eta titularrei deia egiten diena, okupatu aurreko aktak egiteko ekitaldirako.

2014ko irailaren 18ko Ebazpenaren bidez, Garraio Azpiegituren zuzendariak onartu zuen Bilboko hiri-trenbidearen linean Urdulizko sestrako trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektua.

Bilboko metroaren 1. linean, Urdulizko herrian, 22+254 KPan, sestrako trenbide-pasagune bat dago, Bilbotik Plentziara doan errepidea igarotzeko. Errepide hori egun Urduzlizko Aita Gotzon kalea da.

Trenbide Sektorearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, trenbide-pasagune hori kendu beharra dago. Jarduketa hori Bilbo Metropolitarreko eskualde egiturako trenbide-sareari buruzko azterlanean dago jasota (2002ko otsaila), azterlan horretako jarduketa-eskemetan Bilboko hiri-trenbidearen 1. linean Urduliz eta Plentzia arteko trazadura hobetzea planteatzen baita, zehazki, trenbidea bitan banatzea eta sestrako trenbide-pasagune hori kentzea.

Horren ondorio gisa, Bilbo Metropolitarreko eskualde egiturako trenbidea antolatzeari dagokionez, 2005eko otsailaren 22an, Garraio eta Herri Lan Sailak behin betiko onartu zuen honako hau: Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Arloko Lurralde Planaren aldaketa.

Proiektu horren barnekoak dira, batetik, trenbidea lurperatzeko egin beharreko obren definizioa eta, bestetik, 2014ko urtarrilaren Ebazpenaren bidez, Garraio Azpiegituren zuzendariak onartutako informazio-azterlanaren garapena (2014ko otsailaren 25eko EHAA), baita hiri inguruan txertatzeko eta geroko Bilboko hiri-trenbideko Urduliz-Plentzia banaketarekin bateragarri izateko obrak ere.

543 m-ko linea-zati bat estalita geratuko litzateke, bertan Urdulizko geltoki berria, gordeta eta lurpean; horrela, geltokiaren estalkia trenbide-korridorearen alde bietako urbanizaziora egokituta geratuko litzateke. Geltoki berriko atartera fosterito batetik sartuko da. Fosteritoa gainazalean jarriko da, geltokiko egungo eraikinaren hego-mendebaldean, 50 metrora.

Proiektuaren eraginpeko lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak kudeatu ahal izateko, proiektuan jasota geratu dira ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatz bat eta desjabetzeen eranskineko partzela-planoak.

2014ko urriaren 16ko Ebazpenaren bidez erabaki zen proiektua egiteko behar diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedura abiaraztea eta desjabetzeen eranskina jendaurrera ateratzea. Interesdunei jakinarazi zitzaien eta hainbat aldizkaritan argitaratu zen, 2014ko azaroaren 4an: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (210. zk.), eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (211. zk.), eta «Berria», «El Correo» eta «Gara» egunkarietan; horretaz gain, Sopelako eta Urdulizko udaletxeetako iragarki-oholetan ere jarri zen.

Tramite horretan, argitaratutako ondasun eta eskubideen zerrenda dela-eta, hainbat alegazio aurkeztu dira. Alegazioak aztertuta, banan-banako erantzunak eman dira.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren trenbide-azpiegiturako lanak gauzatzeko nahitaezko desjabetze-prozeduraren izapideak egiteko eta ebazpena emateko, halaxe xedatuta baitago Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 14.1.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 13.1.g) artikuluan. Azken dekretu hori, bestalde, martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren bidez aldatu zen lehenik, eta, bigarrenik, abenduaren 2ko 34/2013 Dekretuaren bidez.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluak xedatzen du, trenbideak jarri edo lineak zabaltzeko proiektuak ofizialki onartzeak berekin ekarriko duela proiektuaren eraginpeko eta identifikaturiko ondasunak okupatzea onura publikokotzat eta lehenbailehen egin beharrekotzat jotzea; eta horrek ahalmena ematen dio administrazioari Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako jardunbidera jotzeko eta, hortaz, proiektuaren eraginpeko lurrak okupatu edo ondasunak eskuratzeko; horretarako, lehenbizi, desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak zehaztu, titularrak identifikatu eta baloraziorako behar diren datu eta azalpenak jasoko dira aktan, eta perituak ezarritako diru-kopurua ordaindu edo okupatu aurretiko gordailu gisa utzi beharko da; eta, hala badagokio, premiatasunak ekarritako kalteen ordaina ere eman beharko zaie.

Beraz, aurrekariak, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 20., 21. eta 52. artikuluetan eta haren Erregelamenduaren 56. artikuluan xedatutakoa, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bilboko hiri-trenbidearen linean Urdulizko sestrako trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektuak eraginpean hartzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea (eranskinekoa), eta lehenbailehen okupatu beharrekotzat jotzea, Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Bigarrena.– Dei egitea zerrenda horretan agertzen diren ondasun eta eskubideen titularrei, bertan adierazitako egunean eta orduan Sopelako eta Urdulizko udaletara ager daitezen, eraginpeko ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egiteko, eta, hala badagokio, ondasun eta eskubide horiek formalki okupatzeko. Beharrezkoa izanez gero, eta interesdunak hala eskatzen badu, lurretara bertara joateko aukera ere izango da.

Egintza horretara interesdunek beraiek edo haien izenean jarduteko behar bezalako baimena jaso duten ordezkoek joan beharko dute, eta ondasunen titular direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte (eskritura publikoak, Jabegoaren Erregistroko ziurtagiria edo informazio-oharrak, etab.), baita euren eskubideak egiaztatzeko bestelako edozein agiri ere. Nahi izanez gero, perituak eta notario bat ere eraman ahal izango dituzte beren kontura.

Era berean, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedaturikoari jarraituz, interesdunek zerrendako okerrak zuzentzeko alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte aktak egiteko egunera arte. Alegazioak idatziz aurkeztu beharko dira Ingurumen tea

Lurralde Politika Sailean, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan (Lakua 1, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Garraio Azpiegituren zuzendariari edo Garraioetako sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Eta hala jakinarazten da, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 17a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.

ERAIKUNTZA-PROIEKTUA BILBOKO HIRI-TRENBIDEAREN LINEAN URDULIZKO SESTRAKO TRENBIDE-PASAGUNEA KENTZEKO

SOPELAKO UDAL-MUGARTEA

Finka-zenbakia	Mota	Katastroko erreferentzia			Jabea	Eragin mota			Hila 2015eko otsaila		
		Poligonoa	Multzoa	Partzela		Okupazio iraunkorra (m^2)	Aldi baterako okupazioa (m^2)	Zortasuneko okupazioa (m^2)	Lekua	Eguna	Ordua
MT-01	Trenbidea	012	04	003	Euskal Autonomia Erkidegoa		13.172,20		Sopelako Udala	12	09:30

URDULIZKO UDAL-MUGARTEA

Finka-zenbakia	Mota	Katastroko erreferentzia			Jabea	Eragin mota			Hila 2015eko otsaila		
		Poligonoa	Multzoa	Partzela		Okupazio iraunkorra (m^2)	Aldi baterako okupazioa (m^2)	Zortasuneko okupazioa (m^2)	Lekua	Eguna	Ordua
OT-01	Lursaila	011	01	002	Maria Lejarreta		671,35		Urdulizko Udala	12	12:00
OT-02	Lursaila	011	01	003	Ayo Ugarte Bartolome		5,11		Urdulizko Udala	12	12:30
OT-03	Lursaila	011	01	001	Urdulizko Industrialdea, S.A.		1.174,27		Urdulizko Udala	12	09:30
OT-04	Lursaila	011	01	009	Hormaza Munarriz, Jose Ramon		253,54		Urdulizko Udala	12	13:00
OT-O5	Lursaila	011	01	010	Ansoleaga Zabala, M.ª Angeles eta beste batzuk		90,83		Urdulizko Udala	12	13:30
OT-06 OTS-01	Lursaila	009	01	001	Lointek (Ingeniaritza eta muntatze-teknikak)		546,35	182,19	Urdulizko Udala	12	10:00
OP-01 OT-07 OTS-02	Lursaila	011	01	016	Criteria Caixa Holding, S.A.	10,81	10,08	4,08	Urdulizko Udala	12	10:30
OP-02 OT-08 OTS-03	Lursaila	011	04	017	Unibaso Arambalza, Justo	41,56	273,60	41,69	Urdulizko Udala	12	14:00
OT-09	Lursaila	011	04	002	Bilbao Menchaca, Jose Antonio		223,58		Urdulizko Udala	13	09:00
OT-10	Lursaila	011	04	001	Unibaso Arambalza, Justo		157,63		Urdulizko Udala	12	14:00
OP-03 OT-11 OTS-04	Lursaila	011	04	015	Criteria Caixa Holding, S.A.	52,29	294,75	89,25	Urdulizko Udala	12	10:30

Finka-zenbakia	Mota	Katastroko erreferentzia			Jabea	Eragin mota			Hila 2015eko otsaila		
		Poligonoa	Multzoa	Partzela		Okupazio iraunkorra (m^2)	Aldi baterako okupazioa (m^2)	Zortasuneko okupazioa (m^2)	Lekua	Eguna	Ordua
OP-04 OT-12 OTS-05	Lursaila	011	04	004	Ines Zarraga	4,85	93,20	9,35	Urdulizko Udala	13	09:30
OT-14 OTS-07	Lursaila	009	02	001	Gondra Urrutia, Jose Maria		245,64	30,00	Urdulizko Udala	13	10:00
OT-15 OTS-08	Lursaila	009	02	002	Agurtzane Olivares Vigo eta Amaia Bilbao Olivares		215,92	23,21	Urdulizko Udala	13	09:00
OT-16 OTS-09	Lursaila	009	01	002	Mecaner, S.A.		188,34	100,12	Urdulizko Udala	12	11:00
OP -05 OT-17 OTS-10	Lursaila	011	05	001	Criteria Caixa Holding, S.A.	17,86	341,47	119,04	Urdulizko Udala	12	10:30
OT-18 OTS-11	Lursaila	007	01	001	Estancona Retolaza Dominga		20,10	6,49	Urdulizko Udala	13	10:30
OT-19 OTS-12	Lursaila	001	06	002	Guibelondo Abarrategui Juan eta Guibelondo Asla Maria Begoña		2,08	0,59	Urdulizko Udala	13	11:00
OT-20 OTS-13	Lursaila	001	06	001	Guibelondo Gorordo, Juan Maria		16,80	8,87	Urdulizko Udala	13	11:30
OT-21 OTS-14	Lursaila	001	08	001	EAJ-PNV Euzko Alderdi Jeltzalea		31,13	15,29	Urdulizko Udala	12	11:30
OT-22 OTS-15	Lursaila	001	05	005	Felipe Bilbao, Maria		214,31	12,46	Urdulizko Udala	13	12:00
OP -06 OT-23 OTS-16	002Lursaila	002	---	036	Juana Orozko Urrutia	315,09	168,13	6,45	Urdulizko Udala	13	12:30
OP -07	Lursaila	002	---	131	Guibelondo Abarrategui, Juan Joseren jaraunsleak	4,81			Urdulizko Udala	13	13:00
MT-02 MTS-01	Kalea	---	---	---	Urdulizko Udala.		2.160,44	1.808,74	Urdulizko Udala	12	14:30
MT-03 MTS-02	Geltokia	009	03	001	ETS		32,16	565,57	Urdulizko Udala	12	09:30
MT-O4 MTS-03	Geltokia	001	06	003	Euskal Autonomia Erkidegoa		69,56	424,75	Urdulizko Udala	12	09:30